



2025 EKITALDIKO AURREKONTUA IXTEKO AGINDUA



AURREKONTUA IXTEKO PROZESUA

SARRERA

Aurrekontua ixteko prozesua, EHUKo kudeaketa unitate guztiak lotzen dituela kontutan hartuta, koordinatuta egin behar da, bai forman bai garaian, eta, hortaz, prozesu hori arautuko duten alderdiak ezarri behar dira.

Hurrengo atalean, eta itxiera prozesuaren zati gisa, kontabilitate eragiketa mota bakoitzaren kontabilizaziorako jarraitu behar diren datak jasotzen dira.

Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoak urtero egiten digun eskaerak eragin ditu ondoren aipatzen diren mugarri horiek guztiak. Eskaera honetan eskatzen digu, ekitaldiaren likidazioa, hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen bidaltzeko.

2025 ITXIERA-PROZESUKO ALDI BATERAKO MUGARRIAK

ERAGIKETA	AZKEN EGUNA
GAUREn eskaria egitea no mina bidezko ordainketa 2025eko aurrekontuari egozteko	2025/12/11
Kutxa finkoko gastuen justifikazioa eta kontziliazioa	2025/12/09
Kontabilitate Zerbitzuaren ordainketak,(2025ekoak)	2025/12/23
Kutxa finkoen akordioaren irekiera HEMENDIK AURRERA	2026/01/07
Atzerriko dirutan ordaintzeko eskaera 2025eko aurrekontuari egozteko	2026/01/09
Birbanaketen eta transferentzien eskaera 2025eko aurrekontuari egozteko	2026/01/13
2025eko fakturen jaulkipena	2026/01/15
Kontabilitate Zerbitzuan diru sarrerak hartzea 2025eko aurrekontuari egozteko	2026/01/20
Banku kontziliazioa (Argitalpen Zerbitzua, Egoitza eta IEEB)	2026/01/20
240 edo 400 faseko gastuen kontabilizazioa 2025eko aurrekontuari egozteko	2026/01/23
2025eko fakturak inbentario ofizialean sartzea	2026/02/03
Gerakin espezifikoak sartzea HEMENDIK AURRERA...	2026/02/27



GAUREn NOMINA BIDEZKO ORDAINKETAK 2025eko AURREKONTUARI EGOZTEKO ESKARIA EGITEA

GAUREn nomina ordainketak eskatzeko epemuga 2025eko abenduaren 11 izango da; data horretatik aurrera ezingo da eskaerarik egin 2025eko ekitaldiaren kontra.

2026ko urtarrilean hasiko da berriro prozesua, ekitaldi horretako aurrekontuaren kontra.

KUTXA FINKOKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA ETA KONTZILIAZIOA

Hirugarrenentzako aurrerakinak: ezin izango da justifikatzeke dagoen aurrerakinik eduki, horretarako arrazoirik izan ezean. Arrazoi bat izatekotan, idatziz arrazoitu beharko da, kutxa finkoetako arduradunek sinatuta, eta idatzia Kontabilitate Zerbitzura bidali beharko da, TRAINERA aplikazioaren bidez.

Abenduaren 9a izango da azken eguna, kontu justifikagarria egiteko eta kutxa finkoko gastu guztiak kontziliatzeko, egun horretarako kutxa finko horietan funtsak birjarri ahal izateko.

KONTABILITATE ZERBITZUAREN ORDAINKETAK, 2025eko EKITALDIA.

Kontabilitate Zerbitzua ordainketa aginduak egiten dituen denez, ordainketetarako azken eguna abenduko 23a izango da. Egun hori igarota, 2025eko ekitaldiko gastuak kontabilizatzen jarraitu ahal izango da, baina ez dira ordainketa aginduan sartuko 2026ko urtarrilaren 8ra arte.

Ohi bezala, ordainketak aste bakoitzeko, astelehenean eta ostegunean egingo dira; beraz, urtarrilean ekingo zaio berriro ordainketen egutegiari, hau da: aurreko paragrafoan adierazi bezala, ordainketetarako 2026ko lehenengo eguna, urtarrilaren 8a izango da.

KUTXA FINKOAK BERRIZ IREKITZEA

Urtarrilaren 8tik aurrera onartuko da berriro kutxa finkoko kontabilitatea, justifikatutako saldoak dituzten kutxen kasuan.

GARRANTZITSUA: ezin izango dira 2026an ordaindu, Kutxa Finkoaren bidez, 2025eko ekitaldiari egotziko zaizkion fakturak.

2025eko FAKTUREN JAULKIPENA

2025eko ekitaldiko fakturak igortzeko azken eguna 2026ko urtarrilaren 15a izango da, 4/2013 Foru Dekretuaren 11.2 artikuluan jasota dagoen bezala (4/2013 Foru Dekretua, Fakturazio Erregelamendua).



KONTABILITATE ZERBITZUAN DIRU SARRERAK HARTZEA 2025eko AURREKONTUARI EGOZTEKO

2025ean ikastegi, sail eta abarretako kontuetan izandako diru sarrera guztiak berehala jakinarazi behar zaizkio Kontabilitate Zerbitzuari eta, beranduenez, 2026ko urtarrilaren 20an.

240 eta 400 FASEKO GASTUEN KONTABILIZAZIOA 2025eko AURREKONTUARI EGOZTEKO

240 (ADO) edo 400 (O) faseko gastuak 2025eko ekitaldiaren kontra kontabilizatzeko azken eguna 2026ko urtarrilaren 23a izango da; data horretatik aurrera, 2026ko aurrekontuaren kontra bakarrik kontabilizatu ahal izango dira gastuak.

1. Ohar garrantzitsua: Aplikazioak automatikoki itxiko ditu 2025ean egindako zerbitzuagatiko kalte ordainei (dietak) dagozkien espediente guztiak, baldin eta urtarrilaren 24an, gaituak berrikusi gabe egon edo sinaduraren bat falta bada.

2. Ohar garrantzitsua: Urtarrilaren 23a baino lehen kontabilizatu beharko dira 2025eko ekitaldiari dagozkion faktura guztiak.

Hala ere, 2026ko urtarrilaren 9tik aurrera gastua exekutatu ahal izango da ere (2026ko fakturak eta egiaztagiria) 2026ko aurrekontuaren kontra kreditua duten organikoetan; hau da, 2026ko aurrekontuaren karga egin den horietan, luzatutakoan nahiz behin betikoan.

Atxikitako finantzaketa duten organikoetarako, hots, sartzen diren gerakinetatik elikatzen direnetarako, itxaron egin beharko da 2026ko ekitaldiko gerakinak intsuldatu arte; eragiketa hori 2026ko otsailaren 27tik aurrera egingo da.

GERAKIN ESPEZIFIKOAK SARTZEA

UPV/EHUko Estatutuen 233. artikularen 2. eta 3. puntuetan zehazten den bezala:

233.2: Honako hauek joko dira gerakin espezifikotzat (eta beraz, kreditua sortuko dute hurrengo ekitaldirako eta hasieran horien esleipedun izan ziren atal funtzionalen esku eratuko dira):

- a) Ikerketa proiektu eta azpiegituretarako diren kreditu erabili gabeak.
- b) Kanpoko baliabideez hornitutakoak diren eta helburu jakin batzuetarako diren kreditu erabili gabeak.
- c) Hartutako konpromisoak babesten dituzten dagozkienak eta egiaztatutako arrazoiengatik egin ezin izan direnak, kreditu erabili gabeak.



233.3: Kredituen gerakin espezifikoek espezifiko izateari utziko diete berez zegokien jarduera amaitu eta hurrengo ekitaldia bukatzean.

Titulu ofizialei dagokienez (10 digituko organikoekin identifikatuta daude eta 5. eta 6. digituak TO), ez dira inola ere, gerakinak sartuko. Aldiz, 5. eta 6. digituak TF dituztenen kasuan, tituluak aurreko urteetan izan duen bilakaera hartuko da kontuan.

Titulu propioen eta ikasketa osagarrien kasuan, ez da soberakinik sartuko 2024. urtea baino lehen irekitako organikoetan, urte anitzeko titulazioei dagozkienetan izan ezik.

2024ko atxikipenei dagozkienak ere, ez dira sartuko (10 digituko organikoak, 24RETEn amaitzen direnak).

Beraz, kontrako berrikuspenik egin ezean, 10 digituko kreditu erabilgarriak sartu ahal izango dira, aurreko paragrafoetan aipatutakoak izan ezik, baita lkerketen Zerbitzu Orokorrei dagozkien 4 digitukoak ere (2. digituan S batekin), eta katedrei (bigarren digituan K batekin) dagozkienak.

Hartutako konpromisoetarako gastuei dagozkien exekutatu gabeko kredituen kasuan, gastua egin ezin izanaren justifikazioak bidali beharko dira, dagokion AD kontabilitate agiriarekin batera, Kontabilitate eta Aurrekontuen Gerenteordetzara (kontabilitatea.gerakinak@ehu.eus) helbide elektronikora, 2026ko otsailaren 6a baino lehen Era berean, abenduan egindako eta ekitaldia ixtean erabili ezin izan diren alokairuei dagozkien diru sarrerak, eskatu ahal izango zaizkio gerenteordetza horri berari.

Ekitaldi batetik bestera gerakina eskualdatzea, aurrekontu ekitaldi baten itxierari dagokion azken urratsa dela kontuan hartuta, otsailaren 27tik aurrera eskualdatuko dira eta une horretatik aurrera ezin izango da atzera egin. Horrek esan nahi du, gerakin bat transferitu bada, ezin izango dela 2025 ekitaldiari egotzitako gastua ezabatu edo birsailkatu, ezta ekitaldi horretako sarrerak kontabilizatu ere.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan

Sin.: Javier Varona Guarás

Gerentea/Gerente